

PRÉSERVER SA SANTÉ GURE OSASUNA ZAINDU PRESERVAR LA SOA SANTAT



À Bayonne, prendre soin de sa santé,
c'est l'affaire de toutes et tous.

Baionan, osasuna ez datza bakarrik denek artatzera heltzean: baina bai bizi aktibo, inklusibo, elkarkide eta arduratsua guzientzat sustatzean. Gure hiri bizkor eta engaiatuak, prebentzioa, hezkuntza, Baionarren arteko lotura soziala sarrarazten dituen erronka kolektiboa bilakarazi behar du osasuna. Osasunaren jendarte erabakigarriari aurrean -bizi baldintzak, desberdintasunak, sedentarismoa, jendarte harremanak – osasun demokrazia erreala nahi dugu, non osasuneko herritar profesionalak (publikoak, pribatuak, liberalak), elkarteak eta hautetsiek, osasun orokorra lurralde osoan hobetzeko ekintza konkrituak elkarrekin eraikitzen dituzten. Baionarentzat herriko proiektu aitzinazale, elkarkide eta parte-hartzailean sartzen da desmartxa hau.

Gure proposamenak:

a. Osasun demokrazia aktiboa elkarrekin eraiki

Ekintza nagusia: Tokiko osasun parte-hartzaileko aginteak azkartu

- Osasuneko profesionalak, elkarteak, hautetsiak eta herritarrak biltzen dituen herritar kontseilu iraunkorra sortu, osasun lehentasunak elkarrekin zehazteko, abian ezarri politikak ebaluatu eta ekintza berriak proposatu herriko osasun kausa handiak sortzeko. Gure lehentasuna argia da: biztanlea hiriaren erabakien bihotzean ezarri, baita osasunaz ari garelarik ere. Parte-hartze aktibo eta trukatzeko gunea izanen da proposatzen dugun osasuneko herritar kontseilua eta buxeta parte-hartzaileaz lagundua izanen da. Honi esker, biztanleek haien ekarpenak zuzenki egiten ahalko dituzte denen osasunaren alde eraman gogo ditugun ekintzak konkrituki plantan ezartzeko.
- Elkarbizketa esparruak eta herritar ateleriak garatu auzotegietan biztanleen boza entzunarazteko tokiko osasun politikan, Osasun Hiri Ateleria eta Tokiko Osasun Hitzarmeneko lanetan bermatzeko.

b. Hurbiltasun inklusiboko arta eskaintza sustatu

Ekintza nagusia: Osasun etxeak eta arta sareak garatu

- Osasun etxeen plantatzea auzotegietan aktiboki sostengatuko ditu herriko kontseiluak, osasuneko profesionalak planta daitezten eta denek hurbileko artak goza ditzaten. Erizainek, psikologoek, emaginek, kinesiterapeutek, jendarte langileek eta

orotako medikuek elkarrekin lan egingen dute osasuna gure auzotegien biziaren bihotzean kokatzeko.

- Sostengu azkarragoa Lurraldeko Osasuneko Profesional Komunitateei (LOPK) hiriko artak egituratzeko eta koordinatzeko, ibilbide hausturak murrizteko, eta lehen artak eta ospitalearen arteko trukatzeko lehenesteko.
- Auzotegi bakoitzean, Biztanleen Etxeetako arta, aisialdi zerbitzuak eta aktibitateak... sarrarazten dituzten adineko pertsonen zuzendu tokiko sarea plantan ezarri.

c. Baiona buruko osasunaren alde engaiatu hiria bilakarazi

Funtsezko eskubidea eta justizia sozial, kohesio eta ongizate kolektiborako erronka nagusia da buruko osasuna. Baionan, alor publikoko eta elkarteetako eragileak azkarki engaiatuak badira ere, artak lortzeko, ospitalera sartzeko epeak laburtzeko desberdintasunak -haur eta nerabeentzat, besteak beste- eta estigmatizazio egoerak gelditzen dira. Herriko etxeaz dugun ikuspegiaren arabera, fermuki adierazten dugu Hiriak eginkizun aktiboa duela betetzeko arlo horretan: prebentzio, koordinazio, inklusio, berrikuntza mailan. Buruko osasunerako, biziko adin guziendako hiri osoki hartzailea bilakatu behar du Baionak.

Ekintza nagusia: herriko etxeko ataria sortu gure herritarren buruko osasunaren alde

- Psikiatria zerbitzu publiko azkar eta helgarria sostengatu eta defenditu
 - Hiria zerbitzu publiko psikiatrikoaren partaide aktiboa bilakarazi, hurbileko inbestizamenduak sostengatuz (adarrak, harguneak, berrikuntza numerikoa).
 - “Baiona buruko osasuna” herriko ataria plantan ezarri erabiltzaileei eta haien laguntzaileei arta, segipen eta sostengu eskaintzari irakurgarritasuna emateko.
- Buruko osasuneko erabakigarrien, besteak beste erabilpen numerikoak, prebentzioa egin eta hauen aurka ekin.
 - Haurrei, gazteei eta familiei zuzendu Pantailen eta ongizate psikikoaren inguruko herriko etxeko prebentzio politika hedatu.
 - Emozioen, pantailen eta buruko osasunaren hezkuntza ateleriak garatu eskoletan, auzotegietan eta jendarte zentroetan.
- Nahasmendu psikikoak pairatzen dituzten pertsonentzako hiri inklusiboa eraiki
 - Bizitegi inklusiboa, enplegu egokitua, kultura eta herritar bizia hunkituak diren pertsonen kausitzeko parada eskaini tokiko eragileak sostengatuz eta denen segurtasuna lehenetsiz, aldi berean.
 - Estigmatizazioaren aurka borrokatu kultura, arte eta herritar ekintzen bitartez auzotegietan.
- Seniorren bakartzearen aurka borrokatu. Auzotegi bakoitzak bere errealitate propioa ukanez, auzotegi bakoitzeko diagnostikoa egingen dugun tokiko errealitateari egokiak zaizkion aterabideak proposatzeko gisan. Adineko pertsonen dagokien lekua eman behar zaie auzotegietan.

Baiona, buruko osasunaren alde engaiatua den hiria bilakaraziz, aldarrikatzen dugu ongizate psikikoa berdintasunaren duintasunaren eta elkarbizitzaren funtsezko baldintza dela. Elkartasun, prebentzio eta emantzipazio politika da, gure herriko proiektuaren bihotzean.

d. Osasun-kirola prebentzio tresna gisa garatu

Ekintza nagusia: Denentzako kirol dispositiboak azkartu eta hedatu

- Jadanik dauden osasun-kirol ibilbideak (Aturri, Errobi, hiriko eremuetan hedatuak) azkartu eta berriak sortu, maila guzietan egokiak zaizkien adin guzientzako ibilbideak bihurtzeko.
- Jadanik dauden osasun-kirol etxeak (ordenantza bidezko kirola, aktibitate egokituak) sostengatu era garatu, osasuneko profesionalekin lotura zuzenean, sedentarismoari, zahartzeari eta elbarritasunari aurre egiteko.
- Elbarritasun egoeran dauden pertsonen, seniorren, gazteen, emazteen eta patologia kronikoak pairatzen dituztenen egokituak zaizkien kirol aktibitateak eskaini, tokiko egiturekin partaidetzan, osasun fisikoa eta jendarte ongizatea lehenesteko.

e. Prebentzioa, komunikazioa eta hezkuntza azkartu

Ekintza nagusia: Informazioa, prebentzioa eta baliabideak lortzeko ahala

- Lurraldean eraman ekintzak hobeki ezagutarazi (osasun-kirola, detekzioa, prebentzioa, kontsultak) partaide guziekin (ospitalea, CPAM, elkarteak, eskolak, unibertsitatea) tokiko plataforma bat eta afixatze kanpaina, sare eta tokiko hedabideen bitartez.
- Guraso-haurrak ateleria tematiko erregularrak sortu: pantailen gehiegizko erabilpena, hazkurria eta nutrizioa, buruko osasuna, sexu osasuna, emazte-gizon parekidetasuna, gurasotasuna.
- Sexu eta senarrarengandik jasan bortizkeriei ekarri arreta ibilbide aplantan eta balioan ezarri langile publiko, polizia indar, hezkuntza zerbitzu eta herriko langileentzat, erantzun koordinatua eta biktimen errespetua bermatzeko.
- Sostengu materiala, logistikoa eta osasun prebentzio eta sustapen ekintzak daramatzaten elkarteak formakuntza (nutrizio hezkuntza, ongizate ateleriak, adikzioen aurkako borroka ekintzak...).
- Herriko langileak osasuna lanean zaintzera formatu (ongizatea lanean, bortizkeriak, jazarpenak).

f. Inklusioa, zuzentasuna eta jendarte ongizatea sustatu

Ekintza nagusia: Osasun desberdintasun sozialak txipitzeko ekintza egituratua

- Elbarritasun egoeran dauden pertsonen egokituak zaizkien ibilbideak garatu, artak, kirol aktibitateak, enplegua eta aisialdiak koadro helgarria lortzeko barne.
- Belaunaldi arteko bizitegia lehenetsi, bizi partekatu, osasun prebentzio eta animazio sozial esparruekin, belaunaldi arteko lokarria azkartzeko, bakartzearen aurka borrokatzeko eta ongizate orokorra lehenesteko.
- Etxebizitza, ingurumena, mugikortasun eztea eta osasuna lotzen dituzten proiektuak sostengatu (berdeguneak, ibilketa zirkuituak, gorputz jardueren aldeko urbanismoa).

g. Gure ospitale publikoa eta lurralde partaidetzak sostengatu

Ekintza nagusia: Ospitale azkar, ireki, integratua bermatu

- Euskal Kostako Ospitalea osasun publikoko eragile zentral gisa (larrialdiak, prebentzioa, eritasun kronikoen segipena, komunitate aktibitateak) aktiboki sostengatu, partaidetza azkartuekin ospitalea, herriko etxea, profesional liberalak eta elkarrekin.
- Prebentzioa, detekzioa, arta ibilbideak eta osasunari hezkuntzaren inguruko proiektu bateratuak garatu (hitzaldiak, foroak, ateleria biziak leku publikoetan).

Baiona mugimenduarekin, Baiona, norkbere osasuna zaintzea, prebentzioan, inklusioan, hezkuntzan, osasun demokrazian eta elkartasunean oinarritu lehentasun kolektiboa bihurtzen den hiria bilakaraztea dugu asmo. Elkarrekin, biztanle bakoitza, adin edo egoera guzietakoak, haren osasuna, haren ongizatea eta haren autonomia lehenesten duen ingurumenean bizitzeko ahalmena ukan dezan ekinen dugu. Denei helgarria zaien osasuna, herritarrekin, tokiko profesional eta eragileekin elkar eraikia, osasun hobean dagoen Baiona zuzenagoa, elkarkideagoa sortzeko.